



2022ko Txomiñeneko jaiak. LANBERRI AUZO ELKARTEA

Haurrak ardatz, auzoa argiztatzeko datoz Txomiñeneko jaiak

Irailaren 6tik 8ra hartuko ditu Txominek bere jaiak eta jarduera berriei ateak irekitzeaz gain, itzuleraren bat ere edukiko dute. Publiko guztientzako jarduerak egingo dituzten arren, bereziki haurrentzako jaiak direla azaldu du Amaia Karrera jai batzordeko kideak.

Nagore Garmendia Artano

Iraileko bigarren astean egingo dituzte, urteroko legez, Txomiñeneko jaiak: irailaren 6tik 8ra izango dira aurten, eta, dagoeneko, dena prest du jai batzordeak. Apirila aldera hasten da taldea jaiei buruzko lehen erabakiak hartzen; kontzertuak eta DJ-ak dira lotzen dituzten lehen kontuak, eta, irailera bitarte, behin edo birritan elkartzen dira, hilabetero. Abuztuan, ordea, astean behin elkartzen dira, jaiei azken ukituak emateko.

Auzoko talde txiki batek koordinatzen ditu jaiak, bederatzi auzokide besterik ez dira jai batzordean. Gehienak auzokoak dira betidanik, eta beste gutxi batzuk etxe berriak eraikitzean auzora etorri zirenak dira, gaur egun auzoaren parte ere badire-

nak. Gutxi badira ere, Amaia Karrera jai batzordeko kideak auzoaren laguntza eskertu du: "Talde txikia gara, baina jaiek irauten duten bitartean, auzoko jende askoren laguntza dugu". Jende berria sartzeko deialdia egin nahi izan du, badelako garaia aurpegi berriak ere auzolanean sartzeko. "Oso jende gutxi ausartzen da, gaur egun, boluntario gisa lan egitera", azaldu du Karrerak.

Berrikuntzak eta itzulerak

Txupinazoarekin emango diete hasiera jaiei, eta aurten, omenaldi eta guzti datoz; izan ere, Donostia Arraun Lagunakeko neskei harrera egingo diete auzoan, irabazi berri duten guztia ospatzeko. Horrez gain, haurrentzako jarduerak ez dira faltatuko. Karrerak

esan duenez, bereziki haurrentzako jaiak dira Txomiñenekoak, auzoan haur asko bizi direlako. Helduentzako jarduerak ere egingo dituzte, eta aurten, helduentzako krosa egingo dute, lehen aldiz. Bingo musikala ere egingo dute berrikuntza gisa, eta urtetan zehar auzoko jaietan egon ez den Eureka Dance dantza akademiak *Disney* ikuskizuna eskainiko du, igandean

Helduentzako maitasunaren tonbola ere egingo dute, urtero legez. Antiguako La Gata con Botas *boutique* erotikoko produktuak jartzen dituzte sari gisa, beste batzuen artean, eta jarduera "desberdina eta dibertigarria" izaten dela aitortu du Karrerak. Goizaldean egin izan dute karpan, 01:00ak aldera. Txartelak salgai jarri dituzte jada.

Barrakak ere aipatu nahi izan ditu Karrerak, bereziki. Ez da halakorik egoten Txomiñeneko jaietan, eta horren arrazoia azaldu du jai batzordeko kideak: "Egia da haurrentzako jaiak kontsideratzen ditugula, baina badakigu barrakak jartzen baditugu auzoko hurrek ez dutela guk prestatutako jardueretan parte hartuko, eta nahiago izaten dugu barrakarik ez jarri". Hala, auzoko hurrek euren artean jolas egin eta disfrutatzeke aukera dute, eta, gainera, doan. "Jai oso familiarrak izan dira beti", gehitu du.

Festa ilunik ez

Iaz arazo larriak izan zituzten elektrizitatearekin, Karrerak azaldu duenez. Aurten gauza bera pasatzeko beldurrarekin dago jai batzordea, eta arazoa egi bihurtu baino lehen hartu dituzte beharrezko neurriak; izan ere, aurten, elektrizitate sorgailu bat jarriko dute, jaiak arazorik gabe argiztatuta egon daitezen, behintzat, argi artifizialari dagokionez.

Dena dela, disfrutatzeke unea dela esan du Karrerak; lan egiteko garaia, baina, aldi berean, ondo pasatzeko: "Espero dugu ezer larririk ez gertatzea, eta dena ongi ateratzea". Aurtengo Txomiñeneko jaiei ez zaie argirik faltatuko behintzat, elektrizitate sorgailuarekin edo gabe. ●



OSTIRALA 6

17:30

Txokolate jana.

18:00

Mute ikuskizuna Orain-bi Zirko konpainiaren eskutik.

19:00

Txupinazoa eta jaien hasiera buruhandiek.

19:30

Diskofesta. Zatoz Nemu DJ-arekin dibertitzera, musika eta sorpresak afaltzeko ordura arte.

21:30

Elkarrekin afalduko dugu? Erreserbatu zure mahaia lehenbailehen eta ekarri zure afaria. Erreserbak Irailaren 1era arte. Edukiera mugatua.

23:00

Nemu DJ-a. Bere musika gustatu bazaizu, gaezan gozaten jarraitu ahal izango duzu.

LARUNBATA 7

09:30-15:30

3x3 saskibalo txapelketa.
Basket Kalea taldeko gure lagun
laguntzari esker.
Hainbat kategoria.

10:30

Anersote DJ-a. Goiz osoa bere nahasketekin girotzen. Dantzatzeko prest?

Haur jolasak. Elkarlaneko eta banakako jolasak. Txikienek ere gozatu ahal izango dute!

Horma irudi artistikoa. Atera zure alderik sortzaileena eta lagundu gure jaiak horma irudi polit batekin apaintzen. Adin guztietan.

11:00

Aurpegiak margotzera ingelesez, Kids & Us-en eskutik.

12:00

Ginkana Urumetik, Donostia Kayakekin arraunean (8 urtetik gorakoentzat). Izen emateak: abuztuak 31ra arte.

16:00

Marrazki eta pintura lehiaketa eta eskulanean tailerra.

16:30

Mus txapelketa karpan.

II. Futbol 5 txapelketa. Gutxienez bost ume-ko taldeak. Inskripzioak: abuztuak 31ra arte.

Haur parkea: Zezen mekanikoa, puzgarriak eta ekortzeko makina (3€/eguna/bidaia mugagabeak).

18:30

VI. Zezen mekanikoaren nazioarteko rodeoa (8-17 urtekoentzat).

20:00

Bingo musikala. Eurekak adin guztietarako bingo dibertigarri honekin girotuko gaitu arratsaldean.

21:00

Etxean egindako patata tortilla lehiaketa. Tortillen ematea arratsalde osoan zehar txosnan.

IGANDEA 8

10:00

I. Herriko Krosa: Txomin Power. Inskripzioak: Herrikrosa.eus.

10:00-14:00

II. Futbol 5 txapelketa. Partiden jarraipena.

11:00

Haurrentzako ur parkea. Uretako hainbat puzgarri. (3€/eguna/bidaia mugagabeak).

12:30

Remix musika gaurko eta betiko kantuekin eta mokokada gure jubilatutako martxosoentzat.

14:30

Herri paella jana. Izen ematea Irailaren 1era arte.

16:00

Bote eta toka txapelketak (zaleentzat soilik). Toka helduentzat soilik.

Ping-pong txapelketa. 10-17 urtekoentzat.

16:00-18:00

Futbol 5 txapelketaren finalak.

16:30

Dance time. Ez moztu eta erakutsi zure trebetasunak dantzari bai familian, kuadrillan edo banaka.

18:00

Disneyko ikuskizun musikala. Eureka taldearekin.

18:00

Festaren bukaera buruhandi eta azken trakarekin.